

## LANETARAKO OHAR OROKORRAK

- **Utzi margenak.** Orri batek idatzi gabeko lau margen argi izan behar ditu. Ohar honek edozein dokumentutarako balio du, noski.
- **Eskuz zein idazmakinez edo ordenadorez** egin daitezke lanak. Eskuz oso lan txukunak egin daitezke. Idazmakina arriskugarria da, behin egin da dagoenean ez bait du aukerarik uzten moldapenak edo informazio berriak txertatzeko. Onena, dudarik gabe, ordenadorea, nahi den beste moldapen eta aldaketa egiteko aukera eskaintzen du eta.
- **Aurkibideak,** lan barneko atalak aurkitzeko denez gero, informazio argia eskaini behar du:

a) Atal nagusiak eta bigarren mailakoak bereizita.

b) Sistema *standard* baten arabera moldatua, ez "pertsonala".

Ez dira ataltxo guztiak jarri behar aurkibidean. Bestalde, aurkibidea barneko atalen islada denez gero, bat etorri behar dute aurkibideko atalek eta barrukoek.

- **Azpirarra** edo **kurtsiboa** (Gauza bera da). Obren tituluak azpimarratu egin behar dira beti edo, ordenagailuz idatzi gero, kurtsiboz jarri; beste hizkuntza bateko hitzak ere berdin (jatorrizko grafiaz idatziz gero). Ez erabili azpirarra lerro barnean pertsonaien izenak edo kontzeptuak edo antzekoak, markatzeko.

Hitz konnotatiiboak, zentzu berezia dutenak, komatxo artean.

- **Aipamenak** egiteko ereduak hauek dira:

a) Zati osoa:                   «Nor zen hori?» (46. or.)

b) Zerbait jaso gabe: «...aterpe bat bilatu behar izan zuen  
(...) eta gero etxerantz abiatu zen.» (51. or.)

c) Zatia luzea izanik edo, bi orrialdetan badago:

«Sappleton andreak ez ziola jaramonik egiten eta haren begiak etengabe aterantz eta lorategirantz zuzentzen zirela konturatu zen.» (16-17. orr.)

- **Bibliografia** atalean erabilitako materialak aipatu behar dira. Hasteko, landu den obra bera; honekin batera testu libururen bat erabili bada, edo hiztegiak, entziklopediak... Obra baten egile autore asko direnean **Askoren artean** jartzen da. Adib.:

Gorrotoa Lege, J. Etxaide. Elkar

edo: *Gorrotoa Lege*, J. Etxaide. Elkar

Europa Hiztegia, Askoren artean. Adorez 6.

*Europa Hiztegia*, Askoren artean. Adorez 6.


- **Bestelako xehetasun batzuk.**

a) Egileari buruzko datu biografikoak ez kopia hitzez hitz (obran bertan jartzen direnak, adib.).

b) Ez erabili kolore asko; bi baino gehiago ez da komeni.

c) Taldea: euskaraz **3. D**; gaztelaniaz: **3º D**.

d) Azalpen batean, esaldi batek hurrengo orrialdean segitzen duela adierazteko .../... jartzen da orrialdearen behe aldean, eskuinean. Hurrengo orrialdean berdin, goi aldean, ezkerretara.



### Aurkibidea

Jon Etxaide .....	2
Sarrera .....	3
<u>Gorrotoa lege</u>	
• Kokapena .....	4
• Gaia .....	5
• Argumentua .....	6
• Gertakizun nagusiak .....	7
• Egituraketa .....	9
• Pertsonaiak .....	11
• Baliabideak .....	12
• Iritzia .....	14
Bibliografia .....	16

(Eredu bat)

# ZELAKO LANKETA EGIN

Lantzen ditugun liburuak gehienetan eleberriak edo narrazio bildumak izaten dira. Hauen lanketa edo iruzkina (analisi) egiteko honako urrats hauek bete behar ditugu:

- **Egilea.** Atal honetan autoreari buruzko informazio jakingarrienak bilduko ditugu laburkiro: datu biografikoa eta bere produkzioari dagozkionak. Aurkitzen dugun informazioa laburbildu eta apur moldatu egin behar da; ez da hitzez hitz kopian behar. Atal honen titulua ez da *Egilea* izan behar, autorearen beraren izen-deiturak baizik.
- **Sarrera.** Edozein irakurleri gustatuko litzaiokeen aurkezpen moduko bat izan behar du: obraren ezaugarri interesgarrienak, alderdi desberdinetan luzatu gabe —iruzkina egiten hasiko ginateke, eta atal hau oraindik ez da iruzkina—: noiz egin zen, autorearen lanetan zein garrantzi duen, zein gai tratatzen duen, dituen berezitasunak (pertsonaiak, lekuak, garaiak, esanahia...), obraren estiloa, antolaketa... Dena labur-labur.
- **Obra.** Landu behar den obraren titulua jarriko genuke atal honen hasieran eta, ondoren, azpialak:
  - **Kokapena.** Obraren lanketan hasi garelarik, atal honetan soil-soilik obrari dagozkion ezaugarri bereziak: leku-denborazko kokapena, gaiaren aurkezpena, pertsonaien aipamena...
  - **Edukiaren azterketa.** Atal honetan bi alderdi bereiz daitezke: **gaia** eta **argumentua**.

Obraren (edo narrazioen) gai nagusia mugatu egin behar da eta horretaz iruzkin labur bat.

Argumentua obraren hari nagusiaren kontaketa laburra da. Argumentuan ez dira azaldu behar gerta-kizun guztiak. Liburu luze baten argumentua lerro gutxitan azal daiteke; beste gauza bat da obra horretako gertakizunen kontaketa, baina hori ez da argumentua.

Argumentua, gainera, gertakizunen hari ordenatua izaten da, nahiz eta obran aldrebestua egon. Beraz, lehenengo lana apunteak hartzea da, eta apunte horietatik hari koherentea eta ordenatua atera.

**Gertakizun nagusiak.** Istorioak ulertzeko gertakizun nagusien azalpena egin liteke, labur eta argi (ezin ibil daiteke itzulginguruka, atzera-aurrera, narrazioaren ordena berberari eutsiz; hau oso jokabide kaxkarra izaten da).

- **Egituraketa.** Argumentua osatzen duten gertakizunen garapena nola antolatua dagoen azaltzea da: autoreak aukeratu duen ordena (lineala da dena jarraian azaldua denean; ez da lineala horrela ez denean; izan daiteke lineala baina atal batzuk txertatuta...).
- **Pertsonaiak.** Pertsonaia nagusien edo garrantzizkoen iruzkina ere egin daiteke: bakoitzaren deskribapena, izaera, jokabidea, obran duen funtzioa...
- **Baliabideak.** Prosazko lanetan honako baliabideak aipa daitezke: espresaeren (narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, barne bakarriketa) erabilera, kontaketa tankera (landua, bitxia, pertsonaien arabera egokitua...), narratzaile mota edo motak, tropoen maiztasuna, hizkuntz funtzioen erabilera...
- **Iritzia.** Atal oso garrantzitsua da. Egingako analisiaren ondorioz, aberatsa izan behar du; "Gustatu zait / Ez zait gustatu" moduko sinplekerietan geratzen diren iritziek baliogabetu egiten dute aurreko iruzkin lan guztia. Beraz, aurretiaz egin den lanaren ondorioa da, aurreko guztia atal hau txukun egiteko apunte bilduma bat dela esan daiteke. Atal honetan iruzkina egin duenaren maila laburbildurik geratzen da.

Iritzian obraren iruzkinean zehar atera diren ezaugarriak eta berezitasunak bildu eta komentatu behar dira (gaia, kontaketa maila, istorioaren egituraketa, pertsonaien hautaketa eta garapena, obraren mezua edo esanahia...) eta horien balioa (kalitatea) aintzat hartu.

Iritzirako jarrera oso egokia izaten da idazlearen lekuan jartzea: "Nik neuk nola antolatuko nuke honelako istorio bat, zelan kontatuko nuke..." . Horrela, obra baten zailtasunez ohartuko ginateke eta dituen merituak aitortzeko jarrera irekiagoa ere izango genuke.